



Ibaiondo kaleko aparkalekuak lortzeko zerrendak zabalik daude

>12.000 eurotan
30 urterako lagapena
egingo da

>>94 683 36 72ra deitu
behar da, edo Alamedako
udal bulegoetara etorri

>>> 1.535.281 euro
inbertitu ditu Udalak
aparkalekuetan

A benduaren amaierarako Ibaiondo kalean (Txomin Agirre ikastolaren azpian) dauden udal aparkalekuetako obrek azken ikutuak prest izango dituzte, eta urte berriaren hasieran erabilgarri egongo dira. Aparkalekuak 137 plaza ditu, eta horietatik 4 ezinduentzako izango dira.

Aparkalekuak 3.279.597 eurotako kostua izan du osotasunean, horietatik 1.605.000 euro Espainiako Gobernuaren diru laguntzetatik jaso dira, eta 139.315 euro Bizkaiko Foru Aldunditik. Gainerako 1.535.281 euroak Ondarroako Udalak jarri ditu.

Astilleruko aparkalekuaren erabilera eredia egokia ari dela izaten irizita, Ibaiondoko aparkalekuan ere erabilera eredu berbera ezartzea erabaki du Udalak. Horrela, datu gutxi batzuren faltan baldintzak zehaztu gabe egon arren, plaza bat eskuratu nahi duenari 12.000 eurotan 30 urterako lagapena egitea da udalaren asmoa. Plaza bakoitzaren salneurria adostera koan, Ondarroako Udalaren gain egon den kostua hartuko da kontuan.

Aurrerantzean informazio eta zehaztasun gehiago zabalduko bada ere, aparkalekuan plazak eskuratzeko interesa dutenentzako zerrenda zabalduko du Udalak. Horretarako Udaleko 94 6833672 telefonora deitu edo Alamedako udal bulegoetan bere izena eman beharko du otsailaren 3a baino lehen.



Aparkaleku berrirako sarrera.

CURSIÑOS DO EUSKARA, DE BALDE • CURSOS DE EUSKARA, GRATIS • COURS GRATUIT DE LANGUE BASQUE • FREE COURSE OF BASQUE LANGUAGE

EUSKARA, ETORKINENTZAT!

CURSIÑOS DO EUSKARA, DE BALDE:

AISA é un programa para a aprendizaxe do euskara. Con este obxectivo o Concello de Ondarroa vai dispor de cursiños intensivos de 60 horas ao servizo de todas as persoas interesadas. Estes cursos son de balde e serán realizados de xaneiro a xuño. Pretenderase axeitar o horario dos mesmos ás posibilidades do grupo. As persoas interesadas poderán dar o seu nome nas oficinas dos servizos sociais ou neste número de teléfono >>>

CURSOS DE EUSKARA, GRATIS:

AISA es un programa para el aprendizaje del euskera. Con tal objetivo el Ayuntamiento de Ondarroa dispondrá al servicio de todas las personas interesadas dos cursillos intensivos de 60 horas. Los cursos son gratuitos y se realizarán de enero a junio. Se intentará adecuar el horario de los mismos a las posibilidades del grupo. Las personas interesadas podrán dar su nombre en las oficinas de los servicios sociales o en este número de teléfono >>>

COURS GRATUIT DE LANGUE BASQUE :

De janvier à juin.
2 jours par semaine, 4 heures.
Délai d'inscription:
jusqu'au 12 Janvier.
Calendrier et horaire: à déterminer
en fonction des besoins du groupe.
Renseignements >>>

FREE COURSE OF BASQUE LANGUAGE:

From January to June.
Two days for a week, 4 hours.
Inscriptions:
Until the 12th of January.
The calendar and the timetable will be established according to the teams needs. Call >>>

94 683 36 68

(8:00-15:00 h.)

UDALEKO GASTUAK

>>> EKONOMIA

Udaleko gastuak gutxitzen eta zerbitzuak hobetzen

Artibai egoitzako zerbitzua hobetuko da, kostuak gutxitu eta behin-behineko lana murriztuz

> Lanpostu finko berri bi sortzea erabaki da, beharginen hutsuneak betetzeko. Beharginen egutegia egoitzako beharginekin landu eta adostu da.



Artibai Egoitza, Errebalatxikiñean.

Bi lanpostu berri sortuko dira Zaharren Egoitzarako. Bi lanpostu hauen sorrerarekin zerbitzua eraginkorragoa egin eta egoitzak duen funtzionamendu ereduarengatik sortzen diren gastu gehigarriak murriztuko dira. Gastu gehigarri horiek batipat sustituzioek eragindakoak dira. Izan ere, 16 langileko lan taldean 37 langile erabiltzera ailegatu izan dira ordezkapen horiek egiteko. Orain bi pertsonen inkorporazioarekin sustituzio asko ekidin egingo dira.

Azpitarragarria da eredu eta egutegia egoitzako langileekin landu eta adostu dela, kontuan hartzen badugu aurreko legealdian udalak 12.000 euro ordaintzen zizkiola kanpo enpresa bati Zaharren Egoitzarako urteko lan egutegia egiteko.

Artibai egoitzako langileen erreklamazio batzuen harira, Udala bertako langileen egoera aztertzen hasi zen. Langileekin egindako batzarretan, ordutegiak hobetu beharra zegoela ikusi zuten, urte amaieran egute-

gian azaltzen ziren desorekak konpontzeko. Azkenean, Udalak eta Artibai egoitzako langileek lan sistema berri bat onartu dute, kostuak gutxitu, lanpostu duina goak sortu eta zerbitzua hobetuko duena.

Lehenengo sisteman, kontrataturik zeuden langile finkoetako batek tarte bat libre hartu edo nonbaitera joateko premia eduki orduko, behin behineko langile bat hartzen zen ordezkapenerako, zerbitzuak dituen ezaugarriengatik derrigorrezkoa delako

une oro lanpostu guztiak beteak egotea. Horrek, zerbitzuaren kalitatea eskastu eta kostuak aragotzen zituen, eta behin behineko lana bultzatu.

Orain, bi lanpostu finko sortzea erabaki da. Bi lanpostu hoiek zuzenean eguneroko txandetara egokituko dira, horrela, langile batek orduren bat libre hartzen duenean edota bere arazo pertsonalenzako baimena behar duenean, hutsunea beteta ez da ordezkapenaren beharrik izango. Era berean, zerbitzuaren

eguneko lan orduak hobeto banatuta, lana eta bizitza pertsonal eta familiarra uzartzeko aukera gehiago emango die langileei eredu berri honek. Horretaz gain, behin behineko lanpostuekin egiten diren zerbitzuen kopurua murriztuko da, bi lanpostu finko sortuta. Azpitarratzekoa da lehenengo ereduak kostu normalaren heren bat gehiago suposatzen ziola azken gastuari. Orain, bi lanpostu finkoekin, gehigarri hori aurreztu eta zerbitzua hobetu egingo da.

**Gabonetan eta urte osoan...
HERRIKO DENDETAN
EROSI**

**eta ZENTZUZ
KONTSUMITU!**

INGURUMEN BATZORDEA



Udaleko brigadan azpikontratak kendu eta lanpostu bi sortuko dira

> Azpikontratak 75.000 euro kostatzen zuen urtean; orain, bi pertsona gehiago kontratatuta, udal brigadak egingo ditu lan horiek, gastu gutxiagorekin.

Azken urteotan, udaleko brigadaren domeka eta jai egunetako lanak azpikontratutako Urbasa S.L. enpresak egiten zituen. Zerbitzu hori kontratatzea oso garestia zela ikusita, udal berriak enpresa horri kontratua ez berritzea erabaki du. Horren ordez, udalak bi behin-behineko kontratatuko ditu, eta horrela brigadan 15 pertsonako ekipo bat osatuko du. Talde horretako kideen ordu-

tegiak egoki antolatuta, udalak aste osoko lanak bere brigada propioarekin beteko ditu, azpikontraten beharrik gabe. Aldaketaekin, ordezkapenentarako kontrataziorik egin beharrik ere ez da egongo, brigadako beste pertsona batek egingo baitu ordezkapen hori. Udalaren asmoa herriko azpiegituren mantenua ahal den neurrian bere ekipoarekin egitea da, udal baliabideak hobeto kudeatuta.



Igogailu publikoen mantenu zerbitzua bateratu da

> Erabaki horrekin 57.142 euro gutxiago gastatuko dira urtero



Udalak herriko igogailu guztien mantenuerako kontratazioa egin du Oronarekin. Herriko 12 igogailu publikoak, kaletakoak eta udal eraikinetakoak, enpresa ezberdinetakoak dira eta, horregatik, igogailu bakoitzaren mantenua ere bere enpresak egiten zuen. Horrek, mantenuaren kostua izugarri igotzen zuen. Orain, kontratua bateratzearekin, Orona enpresak egingo ditu mantenu guztiak, eta horrela 57.142 euro aurreratuko ditu udalak. Kostua, 95.236 eurotako izatetik, 38.094 eurotako izatera pasatuko da.

Zerbitzuaren esleipena lehiaketa bidez egin da. Aurkeztu ziren lau enpresetatik bat kanpoan geratu ostean, Orona, Thyssen Kruup eta Izaren artean izan zen lehiaketa, eta esleipena Oronari egokitu zitzaion.

Beste hainbat zerbitzutan ere udalak irizpide berdinarekin jokatzeko asmoa dauka, bateratu eta gastuak murrizteko.

Non daude Telesforok emandako diruak?

1999an Telesforo Urrestik, momentuan 427.390.853 pezetatan (2.574.643 euro) baloratuak zeuden akzioak utzi zizkion Udalari. Orduan agintean zegoen Euskal Herritarrok udal taldeak, diru horiek, momentu horretan herriaren eskari nagusienetarikoa zen frontoi estalia egiteko erabiliko zirela proposatu zuen. Gerora Telesforo Urresti izena eramango zuen frontoi estalia hain zuzen.

2003an izandako udal gobernu aldaketarekin frontoiaren proiektua bertan behera gelditu eta urteak joan urteak etorri, diru hoiak zertan diren hamaika alditan galdetu izan da ondarrutarron aldetik. Idatzi hau, gardentasunez galdera edo

kezka horri erantzutera dator. Esan bezala, diru kopuru hori akzio baloreetan utzi zitzaion Udalari. Telefonica, Endesa, BBVA eta Iberdrola konpainien akzioetan nagusiki. Beraz, akzio horiek baloreen merkatuari eta beronen gorabeherari lotuak egonik, denboran barrena diru kopurua ere aldatuz doa. Akzioak bere horretan daude, urte batzuetan beren etekinak gastu arrunterako atalean aurrerantzat jaso direlarik. 2008an Amerikako Estatu Batuetan lehertutako finantza krisiak erabateko eragina izan zuen Telesforok utzitako ondarean ere, eta hilabete gutxitan milioi bat euro galdu dira. 2011ko azaroan 1.519.220 eurotan daude baloratuak aipatu akzioak.

ELKARRIZKETA

> TXOMIN ETXABURU,
Pertsonaleko zinegotzia

«Udalak azpikontratekin dauzkan hitzarmen asko errazkeriaz egindakoak dira»



Ardura hartu zuenetik, udalak pilotuta zeuzkan lan-errekamazioak adostasun bidez konpontzen eta langileen ordutegiak berrikusten ibili da Txomin Etxaburu, pertsonaleko zinegotzia. Helburu argi batekin: zerbitzuak hobetu eta gastuak egokitu.

Zelako egoera topatu zenuen udalera sartu zinetenean?

Udalan sartu ginenean, udalari egindako lan-errekamazio askorekin topatu ginan, aurreko udal kudeaketa batzordeak erantzun barik zeuzkan eskeriak. Horiei erantzuten hasia izan zen gure lehenengo lana. Gure nahia arazo guzti hauek konpontzea zen.

Arazo hauei elkarrizketa bidez eman diegu konponbidea, arduradunekin eta sindikatuekin berba eginda.

Udaleko langileen antolaketa be aztertu duzue?

Errekamazioei erantzuten ari ginela, konturatu ginen udal langileen ordutegietan desoreka handiak zeudela, eta horrek zerbitzua eskasten zuela eta gastuak handitzen zituela: ordutegiak hain ziren irregularrak, askotan behin-behineko langileak kontratatu behar izaten zirela hutsuneak betetzeko. Eta horrek gastua asko handitzen zuen.

Guk pentsatu genuen langilego osoaren ordutegiak eta lan-egutegiak estandarizatu egin behar zirela. Zaharren egoitzan, adibidez, ordutegiak berraztertu genituen, bi pertsona kontratatuko ditugu eta lan talde horrekin zerbitzu hori osorik beteko dugu. Jada ez daukagu

ebentualen beharrik, eta horiek kontratatzen gastatzen genuen dirua aurreztu egingo dugu. Bi pertsona kontratatuta ere, dirua aurreztuko dugu. Eta, esan beharrik ez dago, zerbitzua asko hobetuko dela. Langileek ere erraztasun gehiago edukiko dute lana eta euren bizitza uzartzeko.

Udaleko beste langileekin be halako adostasunetara ailegatu gara, eta egutegiak estandarizatu ditugu. Horrek, udalaren zerbitzua hobetuko du, eta kasu batzutan gastuak txikituko ditu. Brigadako kasuan, adibidez, 25.000 euro aurreztuko ditugu urtero, behin-behineko lanpostuak kendu eta bi lanpostu finko berri sortuta.

Azpikontratak aztertzen ere hasi zarete.

Bai. Guk momentu honetan ezin ditugu zerbitzu guztiak geure gain hartu, baina ekonomikoki ahal dugun neurrian azpikontratak gixkitzen ahaleginduko gara.

Bestetik, udalak azpikontratekin eginda dauzkan hitzarmen asko errazkeriaz egindakoak dira, eta irabazi marjen handia ematen diote enpresari, nahiz eta gero hori ez den igartzen azpikontratutako langileen soldatetan. Horregatik, zorrotzak izan behar gara enpresa horiekin. Euren irabazi marjenak txikitu behar ditugu, langileen soldadak ikutu barik. Azpikontraten gastuak txikitu behar ditugu eta, ahal den heinean, azpikontratazioarekin amaitu. Lanean ari gara hori lortzeko, azpikontraten gastuak handiak direlako eta langileen egoera okertzen dutelako.

BARRIMOTZAK

INGURUMENA

> Udaleko ingurumen batzordea kontsumo taldea bultzatzen dabil

Udaleko ingurumen batzordeak kontsumo taldeei buruzko hitzaldia antolatu zuen azaroan. Bertan, EHNE sindikatuko kide batek halako talde batek zelán funtzionatzen duen eta zeintzuk onura dituen azaldu zuen: bertoko baserriak berpiztea lortzen du eta produktu osasuntsuagoak kontsumitzen dira. EHNEkoen esanetan helburua kontsumitzaile eta saltzaile eredu gainditu, eta bestelako produkzio eta kontsumo eredu bat bultzatu nahi duten jendearen artean sareak osatzea da.

Bertaratu ziren entzuleen artean kontsumo taldeko kide izateko interesa zutenen artean zerrenda bat osatu zen, eta hurrengo pausoa talde hori hornituko duen baserri bat topatzea da. Sindikatukoak horretan dabilta. Bitartean, udalak diru bat ere gorde du aurrekontuetan, taldearen beharretarako lokal bat egokitzeko.

> Gabonetako argien erdiak ipiniko dira aurten

Ingurumen batzordeak aurreko urtean ipini ziren Gabonetako

argien erdiak ipintzea erabaki du. Gainera, argiak abenduaren 16tik urtarrilaren 7ra piztuko dira bakarrik. Modu honetara, argietan gastatzen den energia eta diru kopuruan aurreztea du helburu batzordeak. Argien orde, Ingurumen batzordeak bestelako bitarteko batzuk erabili nahi ditu herriko komertzioa bultzatzeko, urte osoko kontzientziario kanpainak, adibidez.

> Pilak erositako lekuan bueltatu behar dira

Jende askoren zalantza da ea zergatik ez dagoen pilak jasotzeko ontzirik. Auzo batzarretan ere atera zen gai hau. Udalak jakin arazten du, pilak erosi diren leku berdinean bueltatu behar direla, eta dendakoek eramango dituztela birziklatzera.

HEZKUNTZA

> Etorkinak alfabetatzeko irakasle bila

Ondarroako udalak debaldeko euskara ikastaroak antolatu ditu, batez ere etorkinak gure hizkuntzara hurbiltzeko. Baina etorkin batzuk ez dakite idazten, eta hauentzako klaseak erdaz izaten dira EPAn. Horregatik, udaleko aniztasun batzordeak euskarazko alfabetatzea eman nahi die etorkin hauei, eta horretarako irakasle bolondresak bilatzen dabil, astean ordubete edo ordu biko klaseak emateko. Helburua

ez da bakarrik etorkin hauek idazten ikastea eta euskarara hurbiltzea, herritarren eta etorkinen harremanak ere sendotzea ere bai. Interesa daukanak helbide honetara idatzi behar du: komunikazioa@ondarroakoudala.net

EUSKARA

> Euskara Batzordeak logotipo lehiaketa martxan jarriko du

Lehiaketaren helburua Ondarroako Udal Euskara batzordea eza-gutzera emango duen diseinu grafiko bat aukeratzea da. Lan irabazlea batzordearen ekintza guztietan iragarriko da. Saria 500 eurokoa izango da eta partehartzeko baldintzat eta datak Ondarroako udaleko tabloian eta web orrian argitaratuko dira.

KIROLA

> Kirol batzordeak kirol agenda ipini du interneten

Kirol batzordeak zerbitzu berri bat ipini du martxan: kirol agenda. Udaleko web orriaren pantaila nagusian dago kokatuta eta, astero, honakoak txertatuko dira bertan: Ostegunero kirol agenda eta asteartero kirol emaitzak. www.ondarroa.eu

>>> HERRITXARRAN BATZARRA



>>> 2012ko aurrekontuak herritarren aurrean azaltzeko ekitaldia egingo da urtarrilaren 14an, 17:30ean

Aurten aurrekontuak zehazteko prozesu parte hartzaile jarri du Udalak martxan. Urrian hasi zen prozesua auzoetako batzarrekin. Gero, auzoetako ordezkariekin auzo bilguneak burutu dira azaroan zehar. Bertan, auzoetako ekarpenak jaso eta lehentasunak ezarri dituzte, hauek aurrekontuetan lekua izan dezaten. Aldi berean, arloetako batzordeak ere aurrekontuei begira aritu dira lanean. 500 bat ondarrutarrek parte hartu dute aurrekontuen prestatetan. Hau lan guzti hau Herritxarran Batzarrekin eta aurre-

kontuen aurkezpenarekin amaituko da. Hortik aurrera Udalak hor jasotakoa bete beharko du.

Herritxarran Batzarren zereginak herritar guztiei 2012ko aurrekontuen nondik norakoak azaltzea izango da. Aurrekontua onartzeko jarraitutako irizpideak eta ibilbidea azaldu, eta bertan jasotako egitasmoen berri eman. Hau, **urtarrilaren 14an, zapa-tuan**, izango da, arratsaldeko **17:30ean Kofradia Zaharrean**. Bestetik, uratrrean udalak aurrekontuei buruzko aldizkari berezi bat aterako du, azalpenak herriko etxe guztietara ailegatzeko.

BERDINTASUN KONTSEILUA • AZAROAREN 25A



>>> Emakumeen kontrako indarkeriarekin amaitzeko lanean

Azaroaren 25ean Ondarroako kaleetan ozen entzun zen emakumeen kontrako biolentzia salatzen ohiua. Udaleko Berdintasun Kontseiluak deituta, goizean ekitaldi instituzionala egin zen Alamedan eta iluntzean andrabandako tanbor hotsek eta manifestazioak espazio publikoa hartu zuten. Egitarau zabal baten parte izan dira ekintza hauek.

BATZORDEAK

Atal honetan udal batzordeei buruzko informazioa eskainiko dugu: zertan dabilen talde bakoitza, noiz batuko den...



BATZARRAK

> ONGIZATEA

Datorren **urtarrilaren 23an, astelehena**, Ongizate batzordea batuko da, 18:00etan, udaletxeko bigarren solairuan. Herriko talde eta norbanako guztiontzat, batzorde irekia da.

> EUSKARA

Datorren **urtarrilaren 11n, eguaztena**, Euskara batzordea batuko da, 18:30ean, udaletxeko bigarren solairuan. Herriko talde eta norbanako guztiontzat, batzorde irekia da.

• **BATZORDEETAKO AKTAK ETA DEIALDIAK IKUSGAI:**
www.ondarroa.eu



Berdintasun Kontseilua, beharrean

Tokiko berdintasun politika egokiak eta eraginkorrak martxan jartzeko emakumeen partaidetza bideratzea ezinbesteko baldintza denez, berdintasun sailaren ibilbidean emakumeen parte-hartzea eta jabetzua presente egon da, eta horien adibide argiak dira, besteak beste, Ondarroako Emakumeen berdintasunerako Udal Kontseilua, Emakumeentzako Jabetzua Eskola, eta herriko emakume taldeek egindako

ekarpenak. Udalean martxan ipinitako beste batzordeen ildo bera jarraituta, Berdintasun Kontseiluan ere adostasunez hartutako proposamenak bideratzen gabiltza, partaidetza zabala sustatzeaz gain. Berorren eredu, azaroan burututako egitarau zabala eta datorren urterako prestatzen gabiltzan ekimenen plangintza.

Orain **salto kualitatibo bat ematea egokitzen zaigu:** emakumeentzako gune propioak

zabaltzea eta emakume mugimenduarekin eta feminismoarekin bat egitea. Feminismoa indar askatzaile gisa ulertuta, pertsona guztiontzat baliagarri izan daitekeen teoria askatzaile lez.

Gaur egungo emakume aurrakoi eta askeekin harreman osasuntsuak bermatzeko, ezinezkoa da maskulinitate eredu tradizionalarekin jarraitzea, heziketa eta elkarlanean oinarritutako bidea behar-beharrezkoa da. Horregatik, Emakumeen Kontseiluarekin

batera, **Udalak emakumeentzako gune bat sortzeko asmoa du** emakume elkartearen arteko koordinazioa eta elkarlana bultzatzeko.

Topaketa, elkarrizketa eta hausnarketa eremu bat izango da, esperientzien elkar trukerako eta ekintza kolektiboa sortzeko. Hainbeste urtetan lokal sakabanatuetan lanean jardun ostean, herriko emakume elkartearen aspaldiko aldarrikapena errealitate bihurtu nahi dugu.

KULTURA

> Gabonetako informazioa, esku orrian



2011ko gabonetako egitarauaren azala

Udalak eta herriko talde, elkarte, musika talde, eskola eta ikastolek, Bide Onera Zine Aretoak eta Kafe Antzokiak barne, 36 ekintza antolatatu dituzte gabonetarako. Udalak esku orri baten jaso ditu guztiak, eta etxex etxe banatu du. Nahi duenak, udalaren web orrian ere ikusgai dauka (http://www.ondarroa.eu/es-ES/Eventos/2011/Gabonak_2011.pdf) Halandabe, ziur egongo direla ekintza gehiago herriko taldeek antolatuta. Adi deialdiei!



Hezkuntza Batzordeko kideak guraso elkarteekin batzarrean.

Hezkuntza Batzordea

Hezkuntza batzordea ere lehen pausuak ematen dabil. Uda aurretik lehen bilerak izan zituen herriko ikastetxeekin eta gaztelekuko guraso elkarteekin, baita beste hezkuntza eragileekin ere.

Momentu honetan, hurrengo urteerako plangintzaren zirriborroa lantzen ari da. Dokumentu

hori ikastetxeen eskuetan dago eta euren ekarpenak jaso ondoren, hezkuntza batzorde ireki bat deitzeko asmoa dago plangintza hori aurkezteko.

Bitartean, Errebala Txikiñe gaztelekuko guraso elkarte eta enpresarekin araudi bat lantzen ari dira, proiektu horren funtzionamentu egokia bermatzeko.

Kirol batzordea

Atera da jadanik 2011. urteko diru laguntzen deialdia. Aurreko udalak 35.000 euro utzi zituen deialdi honetarako eta legealdi honetako lehenengo kirol batzordean jakinarazi genuen bezala, partida hau gehitzea zen gure helburuetako bat. Azkenean 55.000 euro izan dira deialdirako lortutakoak.

Gai honen inguruan hiru erronka nagusi jarri ditugu 2012 urterari begira:

- Urtarrilean edo otsailean ateratzea deialdi berria, hau da, "egoera normalizatzea". Horrela, herriko kirol talde guztiek jakinago dute zenbat izango den udaletik jasoko dutena.

- Ahal den neurrian, deialdirako diru gehiago lortzea.

- Deialdia erabat eraberritzea. Horretarako, kultur eta kirol talde ezberdinek osaturiko batzorde berezia abian jarri da, azterketa sakona egin eta egin beharreko moldaketa guztiak egiteko.

Azaroaren 9an izan genuen kirol batzordean, hainbat urtez ezagutu izan dugun "kirolari

onenaren" sariaren inguruko hausnarketa burutu genuen. Ondorioz, bai formatu aldetik eta baita kontzeptualki ere, hainbat aldakuntza adostu genituen. Hona hemen aipagarrienetarikoa.

- LAU sari banatuko dira: urteko kirolaria, urteko kirolaria, urteko kirol taldea eta aipamen berezia.

- Berriazko gala bat antolatzeko. Lehenengo pintzeladak zehaztu ziren baina azken ukituak hurrengoko batzorderako utzi genituen.

- Kirol batzordekideez gain, herritarrei ere kandidatutak aurkezteko aukera zabaltzea. Datorren urtera begira, bozkatzeko aukerak ere abian jarriko dira.

Momentu honetan, gainontzeko batzordeetako arduradunekin elkarlanean, 2012ko aurrekontuak prestatzen ari gara eta oso itxaropentsu gaudela esan behar dugu, udal berriak eskainiko dituen baliabideak, herriko kirol zaletasun eta demandari begira, egokiagoak izango direlakoan baikaude.

TALDEAK BERBETANI

Atal honetan taldeei eskainiko diegu tartea. Udalean ordezkariak daukaten bi talde politikoek ere (Bilduk eta EAJ), hementxe daukate euren tartea.

BILDU

Txomin Agirre ikastolako patioaren lurzorruak

Bilduk ekainean udalaren ardura hartu zuenean, mahai gainean Txomin Agirre eskolaren eskariekin topatu zen: bere patioa estali eta 5 aparkaleku plaza emateko eskatu zuten, hain zuzen be. Baina eskaera hori ezin da bete, arauak lagatzen ez dutelako eta, gainera, lur hori ez delako ikastetxearena.

Azal dezagun zer gertatu den patio horrekin: Ikastola eraiki zenean lur horren jabea zen parrokiak udalari lurraren zati bat eman behar zion erabilera publikorako, eraikuntza lanetan egiten den lez. Parrokiak hiru terreno edo lursail emango zizkiola agindu zion udalari, tartean gaur egungo patioa. Hau horrela zen, Kamiñazpiko Plan Partzialak espazio publiko libre eta berdeetarako kalifikatu zituelako lur horiek. Baina parrokiak ez zuen halakorik egin, eta bera geratu zen 3 terreno horiekin.

80ko hamarkada hasieran eskola inguruko 3 lurzoruen egoera urbanistikoa aztertu zuen udalak, Felix Aranbarri alkate zela. 1983ko otsailaren 25eko Osoko Bilkurak aho batez eskatu zion Parrokiari 3 lursailak udalaren izenean ipintzeko dohainik eta derrigorrez, arauak eskatu lez, 45 egunetako epean. Ez zen halako eskaria egiten zitzaien lehen aldia, beste bi aldiz ere egina zitzaien eta. Parrokiako ordezkariak egoera onartu, eta dirutan ordaintzea proposatu zuten. Baina azkenean ez zuen ordaindu, eta ez zuen terrenoirik itzuli.

2007ko ekainaren 8an Aitor Marurik hitzarmen bat sinatu zuen ikastetxearekin, legez hala eskatu arren inon publikatu ez zen hitzarmena, gainera. Bertan, aparkalekuak egitearen truke ikastetxeari aterpea eraiki eta aparkamentu plazak emango zitzaizkiola hitzartu zuten. Baina hitzarmen horrek bi akats potolo zeuzkan: bata, ez zuen kontuan hartzen lurra ez zela ikastetxearena eta, bestea, herriko arau urbanistikoek ez dutela lagatzen hor aterperik egiten, ezta lurra ikastetxearena izango balitz ere. Gainera, ikastetxeari bost

aparkaleku plaza jabetza pribatua ematea ezinezkoa da, aparkaleku horiek publikoak direlako.

Hainbat urtetan ahaztua edo lurperatua egon den gaia azalera irten da aparkalekuak burutzeko egitasmoa martxan jarri denean, nahiz eta aurreko udal kudeaketa taldea hau izkututzen saiatu. Ondarroako ezker abertzaleak idatziz aurkeztutako alegazioetan ere hala jakinarazi eta salatu zuen gestoraren aurrean, baina beraien kudeaketa baztertzaileri jarraituta, entzungor egin zuten.

Gestorak ondo zekien ikastola inguruko lurren egoera zein zen, eta hori estaltzeko pausoak eman zituen. Adibidez, haseratik dohainik udalarentzako beharko zuten 3 terrenoetatik bi (patioa ez beste biak) udalaren izenean eskrituratu zituen 2009an gestorak. Baina patioa ez zituen eskrituratu, eta ikastolarenak izango balira lez laga zituen. Gestora hain isilean eta izkutuan ibili zenez, ikastolako gurasoek ere ez zekiten egoera zein zen!

2011ko udazkenean Ondarroako Udal berriak eta Txomin Agirre Eskolako hainbat ordezkariak bilera bat egin zuten, eta bertan egoera zein zen azaldu eta argitu zitzaizkien ikastetxekoei. Alde batetik 2007an sinatutako hitzarmenaren baitan jasotako hainbat eskaera ezin direla legez aurrera eraman azaldu zitzaizkien eta, bestetik, espazio publikotarako den lursailaren (patioaren) erabilera adostasunera iristeko borondatea agertu zitzaizkien, beti be patioaren jabetza udalarena (herriarena) dela argi lagata. Gauzak argi egin nahi ditugu, herriko arauak agintzen dutena beteta.

Aparkalekuaren finantziarioari dagokionez, EAJren udal gestorak 2023rarte urtean 105.000 eurotako kuotetan luzatuko den mailegua edo kreditua 2011ko maiatzeko hauteskundeak galdu eta gero sinatu izana ez zaigu zuzena iruditzen! Logikoa zeregin hori Udal aginte berriaren esku uztea litzateke, 2023rarteko finantza zama utzi eta hanka egin beharrean.

EAJ

Hau EAJren tartea da. Udalbarriak honetarako EAJk ez du idatzirik bidali.

Ondarroako GIZON TALDEA

«Umeei oparia erosi aurretik, balore egokiak transmititzen dituen pentsatu»

Ondarroako Gizon Taldea 2006. urtean osatu zen ordungo udaleko Emakumeen Batzordearen ekimenez. Urte hauetan, maskulinitatearen gaia aztertu eta kaleratzeko egin dugu lan. Gizon Sareako Xabi Odriozolak emandako tailerren bidez, gaur egungo maskulinitate ereduak birplanteatu ditugu, uste dugulako andra eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko gizona ez kook ere lan egin beharra daukagula, eta geure portaerak ere aldatu behar ditugula. Emakumeen aurkako indarkeria, sentimenduen kudeaketa, aitasuna bezalako gaiak ere landu ditugu. Gurea bezalako taldeekin ere harremanak ditugu (Gizon Sarea koordinakundea, Zipriztin Ermuako gizonen taldea, Santurtziko taldea, Bilboko Piper-Txuriak,...).

Inguruko herrietan dagoen gizon talde bakarrenetarikoa gara, eta hori poztekoa da. Herrian ere pauso asko eman dira aukera berdintasunaren arloan. Baina uste dugu Ondarroan gai hau gehiago landu behar dugula. Egunero ikusten ditugu aukera berdintasuna mugatzen duten jokoak: mutilak nagusi baloiekin jolas parkean; haur eta nagusien zainketa emakumeen ardurapean: publikitatean gizon indartsuak eta emakume ahulak; gizonen soldata hobeak emakumeek baino; emakumeen aurkako indarkeria;...

Jendarteari zuzendutako lanarekin batera, lan pertsonala ere egin nahi dugu. Gizonoi erakutsi digute gogorrak izaten, sentimendurik ez adierazten eta ukatzen, negarrik ez egiten. Horrek kalte handia eragiten digu. Arazo pertsonal edo familiarak ditugu-



nean, ez dugu jakiten arazoa identifikatu, berba egin eta konpontzen. Biolentziara jotzen dugu sarritan, geure buruaren kontra eta, okerrena, bikotekidearen kontra, eta horren ondorio latzak prentsan ikusten ditugu ia egunero.

Udalari ere eskatzen diogu lan horretan inplikatzeko. Gure ekimenak diruz laguntzen ditu, eta

hori eskertzekoa da, baina barne funtzionamenduan ere aldaketak egon behar dira. Adibidez, batzorde eta batzarretan gizonen edukitzen duten parte hartzea nolakoa den aztertu daiteke, aldaketak proposatzeko. Udalaren publikazioetako argazkietan ere gizona ez duen rol desberdinak agertu daitezke: umeak eta nagusiak zaintzen dituzten gizo-

nak, euren sentimenduak adierazten dituztenak... Kaleetako izenak ere aztertu daitezke, gizon eredu desberdinak agertu ahal izateko.

Gabonak ere badatoz, eta herritarrei hau eskatuko genieke: umeei opariak egiteko asmoa badaukate, jarrera irekia edukitzeko. Erosi aurretik, joko batek balore egokiak transmititzen dituen pentsatu, eta ez mutilentzako edo neskentzako den. Geure haurrak, positiboak direla uste dugun balore komun batzuetan hezi behar ditugu, neska edo mutil diren begiratu barik.

Guztionez bete beharra da datozenei, guk izan ez ditugun aukerak eta mundu hobeagoa uztea, noizbait pertsona guztiak berdintasunean bizi ahal izateko. Berdintasunarekin gizonok ere irabazteko asko dugulako.

900 314 053 **TFNOA.** + **ALAMEDAKO BUZOIA****2011ko urriko eta azaroko gutunak eta deiak**

Urriak 24rarte kexen telefonoa ez da erabilgarri egon. Bitarte horretan deitu dutenei barkamenak eskatzen diegu.

2011/10/03

1. Iparkale 20 ondoan dagoen zerkaren egoera salatu nahi dut. Eguneru gure ate eta eskilara guztian katuen kakak agertzen dira. Katu hauek jaberik ez edukieran nik garbitzen ditut eta aspertu naiz, gainera ez da nire lana. Nire ustez herri baten ez litzake jaberik gabeko animaliarik kalin ibili behar. Pentsatsen baduzue baietz, mesedez, batu kaka guztiak. Ze aspaldian ez da kakaik batu, ez zamarrak ez eta urrik bota. Iparkali garbitzen duenak ez du gure eskilari garbitzen eta Iparragirre garbitzen dabena hori bere lana ez dala esaten dau.

(Kontuan hartuko da eta garbituko da)**2010/10/10**

2. Arrigorri hondartzako ur herza garbitxu mesedez. Beixetako mine emoten dau. **(Udako denboralditik kanpo Foru Aldundiaren ardura da hori garbitzea.)**

3. Los que no entendemos euskera también pagamos impuestos. ¿Porque se echa el bando solo en vasco?

(Teniendo en cuenta que el 90% de la población entiende euskera, no creemos necesario difundir el bando en otros idiomas. Aun así, el Ayuntamiento dispone de servicio de traducción para toda aquella persona que lo necesite (94 683 3668). Además en enero se dispondrá de clases de euskera gratuitas.)

4. Ondarrun etxe sozialak ein diz. Jenti giltzak hartute da eta ondion gurasukin bixitxen. Suposaten da etxe honek nesezidadi daukenantzako dile. Ezin leike etxe faltan dazenai emon? Etxe sozialak hartzeko kondizitziñoi batzuk bete bir diz, ba jente honek ez dabez beteten.

(Gogorazi gehienezko 3 hilabetetako epea dagoela giltzak eskuratu direnetik etxean sartzeko. Etxebizitza babestuen adjudikatzaileak benetan etxebizitzaren erabiltzaile direla ziurtatuko du, etxebizitza emateko baldintzetan aurrez zehaztua dagoena betearaziz.)

2011/10/24

5. Kamiñazpi 51 atzekaldean zuhaixka bat landatu nuen, haitzearekin lekuz kanpo dago eta brigadak berriro ondo jartzea eskatzen dut.

(Ahaleginduko gara)**2011/10/27**

6. Gudarien monolitoa bertan behera utzita dagoela. Kafe Antzokiko terraza bihurtu dela. Kafe Antzokiari ezin zaiola hor mahaiak jartzen utzi. **(Terrazen gaia aztertzen gabilta. Monolitoa errespetatu egin behar da.)**

2011/10/27

7. Zaldupeko eskolan goizaldeko ordubata edo ordubiak arte argiak piztuta egoten dira eta jendea futboleant. Izugarritzko zarata ateratzen dute. **(Auzo batzar baten ere egon zen kexa hau eta eskola publikoarekin adostu da. Iluntzeko 9etan itzaliko da argia.)**

2011-11-06

8. Kale salmentan ari diren saltzaileek ez omen dute gainontzeko autonomoen modura zergarik ordaintzen. Itsas aurreko parkina euren kotxeekin betetzen omen dute, eta itxura aldetik ere ez dela egoki ikusten dio. Beste lekuetan kanpora botatzen omen dituzte eta hemen alfonbra jartzen diegu.

(Udala hasita dago martizenetako saltzaileen zergen gaia aztertzen. Horrekin batera tabernen terrazak eta

garajeetako badoen araudia ere bai.)

9. Krisi egoeran Udaleko kamerak kendu diren moduan Udala Gestorak "mangatik" ateratako alkatearen aholkulari kargua ez desagertaraztea ez du ondo ikusten. Udala plantillan ba omen daude zeregin horretan lagunduko luketen profesionalak, eta bestalde, aholkulariaren soldata herrian sortzen diren premiei aurre egiteko aurreratuko litzatekeela uste du.

(Aholkularia udal talde politikoko kidea da, beraz, bere zeregina ez da langileen zereginarekin bateragarria.)

10. Lehenik eta behin eskerrak eta zorionak ematen dizkio Udalbatza berriari. Udaleko ateak herritarrei zabaltzeagatik, herriko kontuetan partehartze-ko aukerak eman eta horretarako gonbidapena naturaltasunez egiteagatik: Bilkura osoko hileroko batzarrak publikoak, ordu egokietan, eta alde zurretik pregoi bidez jakinerazitakoak izateagatik. Batzorde zabalak, auzo batzarrak, kexa eta eskaera telefonoa zein buzoia martxan jartzeagatik. Horretaz aparte, Udalbarrietan herritarrok egin behar dugun ekarpen, proposamen eta kritikak anonimoak ez izatea eskatzen du.

(Jasotzen diren ekarpen zein kexak ez dira izen abizenekin argitaratuko norbaitek espreski hala eskatzen ez badu. Hala ere, guk ere nahiago dugu anonimoak ez izatea. Bestalde irainak eta pertsonalismoak dituztenak ez dira argitaratuko.)

2011/11/07

11. Arana tar Sabin kalean badago zati bat inoiz mangleatzen ez dutena. San Juan Txurritik mangleatzen datozenean, Astilleruko aldapara ailegatzen dira eta gelditu egiten dira. Bes-

talde, Latxanbre enparantza mangleatzen dutenean Zubi Zaharrera ailegaterakoan gelditu egiten dira; beraz aipaturiko kalea ez da garbitzen. Arrazoiren bat dago?

(Ahalik arinen hasiko gara egiten.)

12. Arana tar Sabin 21 eta 23 etxebizitzetan bi bonbilla ditugu bakarrik eta bat fundituta. Eskerrak kirol portuko argitasunari, bestela linternekin atera behar-ko ginateke kalera.

(Ahalik eta arinen egingo dugu.)

13. Gure etxebizitzek (Arana Sabin) duten patioak jabetza partikularra du. Baina erabilera publikoa. Hau da, komunitatekoak ez diren herritarrek ere erabiltzen dute. Horregatik, eskatuko nioke Udalari noiz behinka patio hau ere garbitzea. **(Zamarreroren ibilbideak aztertuko dira eta kontuan hartuko da zure eskakizuna.)**

14. Auzo guztia txakur kakaz beteta dago eta Latxanbre enparantzako lorategia, txakur-oren komun bezala erabiltzen da, txakur jabeak aurrean dudelarik. Ezin da gehiago zaindu lorategi hau?

(Herri guztiko arazoa da. Udalak kontzientziario kanpinak jarriko ditu martxan. Txakur jabeak egiten ari direnaren jabe izan behar dira. Udaleko ordenantzek 300 euroko isunak aurreikusten dituzte.)

15. Zubi Zaharra eta monjetako etxeen bitarte guztian ez dago zebra bide bat ere. Gai hau dela eta idatzi bat bidali nuen Udaltxera 2010. urtean eta "auto gidariak oinezkoak beti eman behar diete bidea" da erantzun zidatena. Zer gerta liteke ume- ren batek zubi zaharreko eskaile- rak aringangan jaitsi eta auto

bat badator? Kontuan izan ez dagoela oinezkoak pasatzeko inongo seinalizaziorik.

(Aztertuko da zure eskaera.)

16. Alamedako komunen garbitasuna zaindu. Komunak garbitu gabe jarraitzen dute eta uraren detektoreak konpondu gabe. **(Jendeak detektoreak puskatu eta erre egiten ditu. Detektoreentzako babesak jarriko dira.)**

17. 0-6 urte bitarteko haur ludoteka eskaera. Lea Artibaiko beste herri batzutan dan modure, Ondarrun haur txikixantzako ludoteka bat nahi dou eskatu. Ondarrun faltan botaten da umik jolastu ahal ixateko leku babestu edo aterpe bat. Begirale bateaz nahiku ixan leike.

(Udal taldeak gaia aztertu egingo du. Baloratuko da eskari gehiago egon daitezkeen zentzu horretan.)

2011/11/15

18. Zaldupe anexoan aparkalekua egin dela baina argiztapenik ez dagoela, argiztapena egiteko 4/6 beso dituen farola bat ba omen dago baina piztea falta dela. Gauzez ez da ezer ikusten. **(Urte amaierarako argia egingo da.)**

19. Nire desadostasune nahi dot agertu. San Juan Txurrun ixekale guzti horiz margoztuzku eta aparkalekuk kendu. Garajin aurririk horiz margotzi ondo da bañe lehen tarti euan lekun garaje biren erdixan kotxi aparta zeinkin eta on ezin dde eta multak ipintxen dabe. Horrek garajioak lokal komertzial modun saldu zin eta erosi ebena udalai badu eskatu eutsen, bañe etxitakuai inok eztozku galdetu ia ados gazen ala ez hor garajik eotiaz. Garajik ondo daz bañe bestiok be tokixe birdou aparkateko.

(Aztertu egingo da.)

DOHAINIK!**TELEFONO BEREZIA**

Zuen kritikak, kexak, ideiak zein proposamenak jasotzeko, telefono zenbaki berezia daukazue. DEITU!

900 314 053**24 ordutan martxan zure mezua lagateko!**

24 horas disponible para recibir tus quejas, tus opiniones o tus propuestas.

**ALAMEDAKO BUZOIA**

Zuen kritikak, kexak, ideiak... zabalagoan kontatu nahi badiguzue, IDATZI GUTUNA eta bota BUZOI URDINEAN!

Deja tus mensajes en el buzón de la alameda.

ASTEGUNETAN:

Kamiñazpi - Arta	07:45
Arta- Kamiñazpi	08:00
Kamiñazpi - Arta	08:20
Arta- Kamiñazpi	08:35
Kamiñazpi - Arta	08:50
Arta- Kamiñazpi	09:10
Kamiñazpi - Portu	09:25
Portu - Kamiñazpi	09:40
Kamiñazpi - Arta	09:55
Arta- Kamiñazpi	10:10
Kamiñazpi - Portu	11:00
Portu - Kamiñazpi	11:15
Kamiñazpi - Portu	11:45
Portu - Kamiñazpi	12:00
Kamiñazpi - Arta	12:35
Arta- Kamiñazpi	12:55
Kamiñazpi - Arta	13:10
Arta- Kamiñazpi	14:10
Kamiñazpi - Portu	14:30
Portu - Kamiñazpi	15:45
Kamiñazpi - Portu	16:00
Portu - Kamiñazpi	16:15
Kamiñazpi - Arta	16:40
Arta- Kamiñazpi	17:00
Kamiñazpi - Portu	18:00
Portu - Kamiñazpi	18:15
Kamiñazpi - Portu	18:30
Portu - Kamiñazpi	19:00
Kamiñazpi - Portu	20:00
Portu - Kamiñazpi	20:15
Kamiñazpi - Portu	20:30
Portu - Kamiñazpi	20:45


ZAPATUTAN:

Kamiñazpi - Portu	09:15
Portu- Kamiñazpi	09:30
Kamiñazpi - Portu	09:45
Portu- Kamiñazpi	12:15
Kamiñazpi - Portu	12:30
Portu- Kamiñazpi	12:45
Kamiñazpi - Portu	13:00
Portu- Kamiñazpi	13:15

DOMEKETAN EZ DAGO ZERBITZURIK.

(Ebaki Herri Busaren ordutegia, gorde patrikaran, eta erabili)

Kontuan hartzeko datak:




ABENDUAK 24, GABON EGUNA

ABENDUAK 31, GABON ZAHAR EGUNA
EUSKAL PRESO ETA IHESLARIEN ALDEKO ELKARRETARATZEA,

13:00etan
Itsasaurre Plazan.
ETXERA

URTARRILAREN 7an, «KOLOSALA IZANGO DA»

HERRI MOBILIZAZIOA
BILBON,
17:30ean
La Casillatik.



ZAINDU HERRIA!

Txakurren kakak jaso egin behar dira

> Kakak jasotzen ez dituenak 300 euroko multak jaso ditzake, udal ordenantzen arabera

Kalera atera eta txakur batek egindako kaka zapaltzea ez da oso gauza atsegina. Baina errua ez da izaten kaka egin duen txakurrarena, jaso ez duen jabearena baino.

Jaberik gehienek euren txakurren kakak jasotzen badituzte be, beste batzuek ez dute halakorik egiten. Ondorioz, herriko kale askotan topatu

daitezke txakur gorotzak.

Txakur batek egindako kaka jasotzea bere jabearen ardura eta betebeharra da. Udaleko animalien ordenantza argia da arlo honetan: "txakurren gorotzak ezin dira bertan behera utzi bide eta plaza publikoetan, umeen parkeetan, lorategietan eta, oro har, leku apaingarrietan edo jendea ibiltzen den lekuetan", eta hori egiten

ez duenarentzat 300 euroko multak aurreikusten ditu ordenantzak.

Ahalegin apur batekin, arazo hau erraz konpondu daiteke. Ez da ezer kostatzen boltsikoan plastikozko boltsa bat eramatea eta txakurrak kaka egiterakoan berau jasotzea. Txakur jabe gehienek horrela egiten dute, inolako arazo barik.

Ondarroako ekitaldien agenda:

<http://www.ondarroa.eu/eu-es/Gertakariak/>

OTSAILAREN 4a, SANTA AGEDA BEZPERA



Koplak eta makila hotsek kalea hartuko dute!

OTSAILAREN 13a, TORTURAREN AURKAKO EGUNA



OTSAILAREN 18, 19 eta 21a, INAUTERIAK!!!



MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA



UMEENTZAKO JOLAS TXOKOA (3-7 urte)
10:00-13:00, UDALETXE ZAHARREAN (abenduak 26, 27, 28, 29 eta 30 eta urtarrilak 2, 4 eta 5. Prezioa: 20 euro)



ERRBLA TXKÑE GAZTELEKUA, (abenduak 23, 26, 27, 28, 29 eta 30 eta urtarrilak 2, 3, 4 eta 5.)
16:00etatik 21:00etara, ZABALIK!



UMEENTZAKO PARKEA
JUMPING-A, GAZTELUAK, BIDEO JOKOAK...
16:00-20:30, UDAL KIROLDEGIAN (abenduak 26, 27 eta 28)

www.ondarroa.eu

UDALETXEA MUSIKA PLAZA z/g

1.pisuan:
Idazkaritza 94 6833674
Alkatetza 94 6833676
Bulego Teknikoa 94 6833677
Kultura eta Kirol Saila 94 6833669
Euskara Zerbitzua 94 6833668
Berdintasun Saila 94 6833670

PLAZA AZPIKO BULEGOAK

Erregistro orokorra 94 6833672
Udalzaingoa 94 6833673
Gizarte Zerbitzuak 94 6833671
Kontuhartzaitletza 94 6833666
Kontsumo Bulegoa 94 6830498
Bake Epaitegia 94 6833679

BESTE UDAL ZERBITZUAK

Kiroldegia 94 613 42 09
Artibai Egoitza 94 683 32 31
Musika Eskola 94 613 40 63
Liburutegia 94 683 33 43
Turismo Bulegoa 94 683 19 51
HHI - EPA 94 683 27 55

TELEFONO INTERESGARRIAK

Osasun Etxea 94 603 79 99
Gurutze Gorria 94 683 19 29
SOS Larrialdiak 112
Suhiltzaileak 94 616 89 92
Itsas Sanitatea 94 683 10 00
Alkoholiko Anonimoak Elkarteak 94 683 20 86
Emakunde 945 13 26 13
Bizkaibusa 902 222 265
Euskotrena 902 543 210
PESA 902 101 210
Taxi-Geltokia 94 683 26 86
Kofradia 94 683 19 51
Txalupen sarrera 94 683 02 23
Enplegu Bulegoa 94 683 07 00

Butanoa 94 616 62 54
Iberdrola 94 415 14 11
Telefonika-Aberiak 1002
Ura- Partzuergoa 94 487 31 87
Postetxea 94 683 15 01
Parrokia 94 683 01 98
Notaritza 94 683 00 83
Arraun Egoitza 94 683 33 35
Zaldupe Zelaia 94 683 10 53
KZgunea 94 683 33 45
Lea-Artibai Amankomunazgoa 94 616 90 68

Gogoratu!

